

PRENTSA OHARRA: 2026.09.18

June Crespok Lyongo 18. Bienalean hartuko du parte Etxepare Euskal Institutuaren lankidetzarekin

- Nazioarteko hitzordu nagusietakoa da arte garaikidearen eremuan; bihar ireki eta abenduaren 13ra arte luzatuko da

- June Cresporen parte hartzea Etxepare Euskal Institutuak euskal sorkuntza garaikidearen nazioartekotzea sustatzeko bultzatzen duen ZABAL programaren baitan kokatzen da

Donostia, 2026ko irailaren 18a-. June Crespo artistak (Iruñea, 1982) Lyongo 18. Biennale de Lyon – Art contemporain erakusketan hartuko du parte. Bihar, irailaren 19an, irekiko ditu ateak Lyongo Bienalak eta abenduaren 13ra arte bisitatu ahal izango da. Cresporen parte hartzeak Etxepare Euskal Institutuaren babesa du, eta euskal sorkuntza garaikidearen nazioartekotzea sustatzeko ZABAL programaren baitan kokatzen da.

Lehenbizikoz 1991n egin zen ekitaldi hau, arte garaikidearen alorrean Frantzia egiten den nagusienetakoa da, eta nazioarte mailan erreferentziazko hitzordu bilakatu da. Edizio bakoitzean herrialde ezberdinetako artistak biltzen ditu hirian zehar ikus daitezkeen hainbat erakusketatan.

Gorputza, arkitektura eta materia

Eskulturaren bidez, June Crespok gorputzaren, arkitekturaren eta materiaren arteko harremanak aztertzen ditu. Hormigoia, erretxina, metala eta aurkitutako elementuak erabiltzen ditu, besteak beste, eta moldekatze, zatikatze eta mihizatze prozesuen bidez organikoaren eta industrialaren artean mugitzen diren formak sortzen ditu.

Egitura ireki eta aldakorren bidez bere lanek oreka eta eraldaketa tentsioan jartzen dituzte. June Crespok arreta berezia eskaintzen die eskalari, hurbiltasunari eta

gorputzek espazioa bizitzeko duten moduei, baita espazioak gorputzak baldintzatzeko duen gaitasunari ere. Gaur egun, Bilbon bizi da, eta bertan egiten du lan.

Azken urteotan bakarkako erakusketak aurkeztu ditu hainbat erakundetan, hala nola Guggenheim Bilbao Museoan, Madrilgo CA2Mn, Artium Museoan, Vienako Secession-en, Ivry-sur-Seineko Le Crédace-n, Turingo Fondazione Sandretto Re Rebaudengo-n eta Kunsthalle Lissabon-en. 2022an, gainera, Veneziako 59. Bienaleko erakusketa nagusian hartu zuen parte, *The Milk of Dreams* izenekoan.

Bere praktikak bat egiten du Lyongo Bienalaren edizio hau zeharkatzen duten zenbait ildorekin. Catherine Nichols-ek komisariatutako 18. edizioak *Passer d'un rêve à l'autre* (Amets batetik bestera igarotzea) du izenburu, eta pasabidearen ideia hartzen du abiapuntu. Horretarako, Lyongo *traboules* direlakoetan inspiratzen da; hiriko kaleak, patioak eta eraikinak lotzen dituzten barne pasabideak.

Irudi horretatik abiatuta, Bienalak bizitza kolektiboa egituratzen duten harremanen, trukeen eta zirkulazio moduen inguruko gogoeta proposatzen du. Erakusketa Lyongo eta bere inguruko hainbat egoitzatan banatuko da; besteak beste, Lyongo Arte Garaikideko Museoan, Les Grandes Locos-en eta Ehunen eta Dekorazio Arteen Museoan.

ZABAL programa

June Crespok Lyonen izango duen parte hartzea ZABAL programaren baitan kokatzen da. Etxepare Euskal Institutuak 2019an jarri zuen martxan programa, euskal sorkuntza garaikidearen nazioarteko proiektzioa sustatzeko eta nazioarteko arte testuinguruarekin dituen loturak sendotzeko.

Programaren helburua da artisten, profesionalen, eragileen eta erakundeen artean epe luzerako lankidetzak sareak garatzea, eta nazioarteko komisario, arte kritikari eta erakundeetako arduradunek euskal arte testuingurua zuzenean ezagutu dezaten erraztea. Programa abiatu enetik, Institutuak arte garaikidearen nazioarteko bienal eta hitzordu nagusietako batzuekin loturak sortu ditu.

June Crespok berak Veneziako Bienalean hartu zuen 2022an, programa honen testuinguruan.

Ça colle au basque

Halaber, June Cresporen Lyongo parte hartzea Ça colle au basque ekimenarekin lerratzen da. Etxepare Euskal Institutuak sustatutako ekimen honen helburua da euskal kulturak eremu frankofonoan duen presentzia eta proiektzioa indartzea.

Ekimenak hainbat lankidetzak kultural eta profesional bultzatzen ditu Frankofoniako erakunde, jaialdi eta eragileekin, euskal sorkuntzak eremu horretan presentzia iraunkorragoa izan dezan.

Honenbestez, June Cresporen Lyongo partaidetza hau ZABALen bidez sustatutako arte plastiko eta ikusizkoen nazioartekotzea eta euskal kulturak eremu frankofonoan duen proiektzioa indartzeko estrategia zabalagoa uztartzen ditu.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeke egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus